




Oskar Gaztelu idazlea, Donostian, bere poesia liburuaren aurkezpen egunean. MAIALEN ANDRES / FOKU

Esan ezin dena hitz gutxirekin adieraztea

Oskar Gazteluk baserriko bizimoduaren galeratik jaiotako poemak bildu ditu 'Bizitza (h)uz(s)ten' liburuan • Ernestina Champourcin saria irabazi du lanak, eta Erein argitaletxeak plazaratu du orain

Naroa Torralba Rodríguez
Donostia

Gizakiak berezkoa duen sentipen «primitiboa» da babesa, Oskar Gaztelu idazlearen arabera (Larrabetzu, Bizkaia, 1964):

«Sua izan zen babes garrantzitsuetako bat, baita kobazuloak ere». Babesgabetasunaren aurrean, baserriak elementu bi horiek batzen ditu, haren iritziz: «Baserri sendoak eraikuntzaren erreferenteak izan dira Euskal

Herrian, mendeetan; gaur egun, zoritxarrez, baserria hilzorian dago». Baserriko bizimodua ezagutu zuen belaunaldia «desagertzen» ari dela uste du, eta horrek artega jartzen du. Gogoe-ta horien guztien ondorio da Bi-

zitza (h)uz(s)ten poema liburu, zeinarekin Ernestina Champourcin lehiaketa irabazi zuen. Orain, Erein argitaletxearekin kaleratu du lana idazleak.

«Nire kasu partikularrean, gurasoak joan dira, eta baserria hutsik gelditu da». Edozer hutsik gelditzen denean errazena alde egitea dela adierazi du: «Beharbada aspalditik alde eginda gaude gu, eta orain hasi gara ohartzeko». Uztetik husterako bidea, ordea, «desberdina» dela dio: «Beste kontu bat da. Baserrian dauden objektuek, esaterako, mezuak bidaltzen dizkigutela».

Oroitzapenak gogoratzea da hustuketa idazlearentzat: «Garai batean bizi izan genuen haurtzaroa gogoratzea da, gure adin sakratua delako haurtzaroa, bada-goelako zoriontasun puntu bat. Eraikuntza horietatik mugitzen ditugunean, baina, objektu ho-

heriotzaz jakitun den umeak ere ahalegin bat egiten duela horretarako: «Dituen hitz mugatuekin saiatzeko da adierazten, eta nik uste dut hori dela poesian dagoena: zerbait pasatzen dena, ezin dena neurtu, kontrolaezina dena, nolabait infinitua. Hori hitz mugatuekin ahalegintzen gara azaltzen, eta hori dago magia: ezer gutxirekin ezinezkoa dena esatea».

Norberak esperimentatzea

Liburuan, baserria eta dolua lotu egin ditu idazleak. «Gurasoetako bat hiltzean, bestea zaintzen duzu, bigarren hori hil artean. Orduan, ezerezean gelditzen zara, gurasoak diren babes mitologikorik gabe. Hein batean, hori baitira: haiek ezagutu gaituzte, gure istorio pertsonalaren orri guztiak haiek dituzte, eta, desagertzen direnean, gu bihurtzen gara helduak, gure kabuz bideratu behar dugu bizitza».

Galera baten kontaktuzuna egin du bilduman, heriotzak hunkitu egiten baitu; heriotza ez delako, haren ustez, elementu filosofiko bat: «Esperimentatu egiten dugu jasan ezina den hori, larrialdi hori, eta horrekin zirkulatzen dugu. Norberak ahal bezala bideratzen du».

Bi momentu bereizgarri daude bizitzan, Gaztelurentzat «bereziki garrantzitsuak» direnak: heriotza da bata, eta jaiotza bestea. «Ematen du denbora eraldatu egiten dela momentu horietan. Hurbileko norbait hiltzean, denborekin zerbait berezia gertatzen da, moteldu egiten da. Eta gauza bera gertatzen da jaiotza batekin».

Heriotzari aurrez aurre begiratzeko lana hartu du idazleak, «ulertezina» ere suerta daiteke-elako zenbaitetan, haren ustez: «Kontua da batzuetan gauzak desagertu egiten direla eta ez dagoela zer eginik. Fase horretan, hondamendia gertatzen da, eta gizakiak zelan egiten dio aurre? Hustuz. Egin ahala, zu ere hustu egiten zara. Hori ezinbestekoa da sostenguekin egitea. Nire ustez, naturarantz bueltatzea da, onartzea eta bat egitea».

Arrosa bat jarri du adibidetzat: «Arrosa loratzea ezin da programatu; eguzkiak berotu egiten du, eta euriak busti. Gure bizitza abiadura handia hartuta dagoen garai hauetan, hori onartzea, horri erreparatzea, iraultzailea da».



Baserri sendoak eraikuntzaren erreferenteak izan dira; gaur egun, zoritxarrez, baserria hilzorian dago»

«Poesiak gogora ekartzen digu aspaldi gertatutako zerbait; sailkatzeko gai ez garen zerbait iradokitzen digu»

Oskar Gaztelu
Idazlea

riekin batera zerbait sakona mugitzen da barnean, eta hori kudeatzea oso zaila da».

Poemak ontzea haurtzaroaren ideiarekin lotu du idazleak. Hain zuzen ere, poesia, Gaztelurentzat, haurtzarorako bidaia bat da: «Nik lehendik badaukat idatzita beste saiakera liburu bat, *Heriotzari aurrez aurre begira* [Erein, 2022]. Hor beste metodologia bat erabili nuen; materiala bilduz, sailkatuz eta ondorioak egituratuz aritu nintzen. Baina poesia beste aukera batzuk ematen ditu. Gogora ekartzen digu aspaldi gertatutako zerbait; iradoki egiten digu zerbait pasatu zena, eta ez garena gai, beharbada, sailkatzeko».

Horregatik ikusten du umeen begirada poesian ere: «Umea kontziente bihurtzen denean, momentu batean konturatzen da noizbait hil egingo dela. Hori izugarritzko aurkikuntza da giza-kiarentzat: finitude hori, konturatzea momenturen batean hau amaitu egingo dela».

Sentipen oro adierazi nahi izaten den antzera, idazleak uste du